

**OÑATIKO UDALA ETA OÑATIKO  
MUSIKA BANDAREN ARTEKO HITZARMENA**

Oñatin, sinadura digitalean aurkezturiko datan, bi alde hauek **BATU** dira:

Alde Batetik, **IZARO ELORZA ARREGUI andrea**, \*\*3963\*\*-G NAN zenbakia duena, Oñatiko Udaleko alkate eta ordezkaria dena. Helbide soziala: Oñatiko Foru enparantzan z/g.

Bestetik, **ION ASTIGARRAGA IRIONDO jauna**, \*\*3414\*\*-J NAN zenbakia duena, Oñatiko Musika Bandako lehendakari eta ordezkaria dena. Helbide soziala: Oñatiko Foruen enparantza 4.

**AURREKARIAK**

Oñatiko herriko musika mugimenduaren bilakaeran eta herriko historian, garrantzitsua suertatu da Herriko Musika Banda. Egitasmo honen baitan, herriko banda etengabeko eraldaketa prozesuan aritu izan da azken urteotan, eta horren ondorioz bere funtzionamendua eta dinamika aldatzen joan da. Egun, Herriko Musika Banda Elkarte bat da, barne antolaketa eta funtzionamendu propioa duena. Udalaren laguntza zuzena du hainbat arlotan, eta ezinbesteko harreman zuzena du herriko Jose de Azpiazu Musika Eskolarekin ere.

Oñatiko Musika Banda izaera honetako elkarte eratu bakarra da udalerrian. Musikariek, zuzendariak eta laguntzaileek osatzen dute; orotara 60 lagun inguru.

Elkartearen helburua musika Oñatiko herritarren artean zabaltzea eta sustatzea da. Urtean zehar, hainbat kontzertu eskaintzen ditu, eta herriko festetan ere parte hartze aktiboa du. Oñatiko Udalak aitortzen du Oñatiko Musika Banda lan oparoa egiten ari dela herrian musika eta kulturaren alde azken hamarkadetan.

Udalak urtez urte Elkarte honekin elkarlanean aritzeko borondatea adierazi du; Herriko Musika Banda Oñatiko nortasunaren adierazgarri bat delako kultur alorrean. Hain zuzen ere, 2023- 2026 epealdirako onartu zen Plan Estrategikok elkarteak sustatzeko eta dinamizatzeko dirulaguntza atalean, musika programazioa aberasteko dirulaguntza lerro zuzena eta izenduna aurreikusten du.

Laguntza lerro estrategiko honen bidez Udalak honako helburu estrategikoak lortu nahi ditu: Oñatiko kultur sorkuntza eta musika programazioa aberastea, musika komunitatearen garapena sustatzea, musika-tradizional eta garaikideen berreskurapena sustatzea eta musikaren esparruan, udalerriak beste udalerrri eta lurralde batzuekin dituen harremanak sendotzea.

Herriko Musika Bandaren hitzarmenaren indarraldia amaitu da 2025.urtean. Hau dela eta, Oñatiko Udalak eta Oñatiko Musika Bandak elkarriketak izan dituzte 2021-2025 urteetako lankidetzak hitzarmena baloratzeko, ondorioak ateratzeko eta hemendik eta aurrerako hobekuntzak identifikatzeko. Balorazio hau guztia aintzakotzat hartuta

beste lau urtetako (2026-2029) lankidetza iraunkorra ezartzeko eta bermatzeko. Bi alderdiek, horretan aritzeko borondatea adierazten dute.

Horiek horrela, parte hartzaileek, duten ordezkartzaren arabera, bere burua lotzeko gaitasuna dute eta hori aitortzen diote elkarri; hortaz, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28.artikuluak kontuan izanik, (2026-2029) lau urte bitarteko lankidetza-hitzarmena gauzatzeko, hauek erabaki dituzte:

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 28/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioak aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntza zuzen eta izendunak emana ahalko dituela, dirulaguntza arautzen duen hitzarmenean eta dirulaguntzak arautzen duen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28.artikuluak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako dirulaguntza izendunak bideratzeko ohiko tresna. Hitzarmenek, legean xedatutakoa denez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisua jaso beharko dituzte.

Uztailaren 21eko 8887/2006 Errege Dekretuko 65.artikuluaren arabera, aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntzak izenduna izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, dirulaguntza hauek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta, eta dirulaguntza arautzeko oinarri izaera izango duen lankidetza-hitzarmenarekin amaituko da.

Dirulaguntza hau Oñatiko Udaleko 2023-2026 Dirulaguntzaren Plan Estrategikoan jasota dago Kultura Sailari dagokion VII. Lerro estrategikoan, kulturaren sustapena: udalerriko kultur egiturari laguntza ematean, sustatzean eta zabaltzean.

Beraz, diru-laguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarri den gainerako araudia ezarritakoa betez, bi aldeek, lankidetza-hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

### **1.XEDEA ETA HELBURUA**

Hitzarmen honen xedea da OÑATIKO MUSIKA BANDA ELKARTEAren aldeko zuzeneko dirulaguntza arautzea, Elkarteko lau urtetako (2026-2029) programazioa, funtzionamendua eta gastuak finantzatzeko.

Helburuei dagokionez:

- Musikari berriak sartzea sustatzea, behar duten formazioa edota laguntza emanez.
- Musikarien etengabeko prestakuntza sustatuko du, horretarako zuzendaritzakerabakitako beharrezko entseguak egingo ditu.
- Musika Bandako kideen arteko harremana eta lotura sustatzeko jarduerakegitea.
- Sentsibiltate artistikoa garatzea, prestakuntza eta aberastasun pertsonalerakoiturri gisa.
- Musikarekin esperimenezko eta musikaz gozatzeko aukera ematen duten musika-hedapeneko jardueretan parte hartzea.



**OÑATI**

*dabilen herria*

- Euskal Herriko musika propioaren garrantzia ezagutzea eta balioestea, bai eta errepertorio bandistikoa zabaltzea eta sakontzea ere.
- Arazu gabeko musika-prestakuntza eskaintzea,

## **2. EKITALDIAK.**

Oñatiko Musika Bandak, Komunitatearen garapena bultzatzeko bere ohiko jardueren funtzionamenduz gain, 2026-2029 ekitaldietarako, urteka, zehazturiko programazioan jasotako ekintzak bideratuko ditu.

Hau horrela Musika Bandak urtean **12 kontzertu** eskainiko ditu:

- *Denboraldi kontzertuak (DK) Zubikoa Pilotalekuan: 6*
- *Hator, hator! Gabonetako kontzertua: 1*
- *Musika Auzoetan (MA): 2*
- *Korpusetako kontzertua: 1*
- *Jaiak: San Miguel eta Errosaixo Eguna. 2 kontzertu.*
- Banda gazteak urtean *2 kontzertu* eskainiko ditu Santa Ana antzokian.
- Musika Bandak urtean *12 kalejira* egingo ditu.
- *Ekitaldi bereziak:* Korpus eguneko prozesioa, Korpus bezperako kalejira, jaietako bi danborradak, Errosaixo Bixamoneko kalejira eta abenduaren 24 eta 31n gabon-doinuak.
- Eginbehar bereziren bat sortuko balitz, Udalak emanaldi bat egiteko eska diezaioke Musika Bandari. Emanaldi horren truke ez dute dirulaguntza berezirik jasoko.

Musika Bandak urteko denboraldiko egutegi- programa aurkeztu beharko dio Kultura Sailari. Urteko denboraldiko egutegia Udalaren Kultura Sailarekin eta Kirol Sailarekin adostu eta koordinatuko da.

### **2.1 INOREN MATERIALAK ERABILTzea.**

Hirugarren baten jabetza intelektualaren eskubideak urratu ez daitezen, hitzarmen honetan jasotzen diren Oñatiko Musika Bandaren ekitaldietan interpretatzen diren lanen egile-eskubideak Oñatiko Udalak ordainduko ditu. Nolanahi ere, Oñatiko Musika Bandari dagokio jabetza intelektualaren eskubideak dituenarengandik behar diren baimenak lortzea. Ondorioz,

Oñatiko Musika Bandak behar diren baimenak behar den bezala ez kudeatzeagatik, jabetza intelektualaren gainean kalteren bat gertatzen bada, Oñatiko Udalak hitzarmena bertan behera utzi ahalko du berau ez dela bete arrazoituz.

### **2.2. JARRAIPEN BATZORDEA ETA BILERAK.**

Oñatiko Musika Bandak edo Oñatiko Udalak beharrezkotzat jotzen dituzten bilerak deitzeko eskubidea izango dute. Halaber, kultura sailarekin bilduko dira agenda edo programazioa zehaztu behar den aldiro





**OÑATI**

### **3. ARAUBIDE JURIDIKOA.**

Dirulaguntza hau arautuko dute, errege dekretu honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean bereziki xedatutakoak ez ezik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2206 Errege Dekretuak onartutako hura garatzen duen Erreglamenduan aurreikusitakoak ere, publizitate eta lehia-printzipioei eragiten dienean izan ezik, bai eta, modu osagarrian, urriaren 1eko Administrazio Publikoen urriaren 1eko 39/2015eko ( urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) Legean aurreikusitakoa ere.

### **4. OÑATIKO UDALAREN BETEBEHARRAK**

Oñatiko Udalak Oñatiko Musika Bandak antolatzen dituen jardueren burutzapen egokiabermatuko du, horretarako diruz zein azpiegituraz lagunduz.

#### **4.1 LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA FINANTZAKETA ARAUBIDEA.**

Oñatiko Udalak Oñatiko Musika Bandari dirulaguntza zuzen eta izenduna bidezko dirulaguntza emango dio, hitzarmen honen xede diren kultur eta musika-jarduerak finantzatzeko.

Dirulaguntzaren zenbatekoa urteko laurogehita hamaika mila ehun eta laurogehita hamabi koma berrogehita hamar euro ( 91.192,50 € ) izango da, eta lau (4) urteko iraupena izango du, hitzarmen honen indarraldiarekin bat etorritik.

Horrenbestez, izaera plurianualeko gastua ezartzen da, gehienez 273,577,5€ko kreditu konprometitua onartzen delarik.

Urtez urteko banaketa honako hau izango da:

.-2026ko ekitaldiko ordainketa kreditua: 91.192,50€

Hitzarmen honen xede den dirulaguntzarako, kreditu egokia eta nahikoa ezarri da 2026 urteko Udal aurrekontuetan. Dirulaguntza 0800.481.334.00.01.339.2026 partidaren kontura eta haren lotura-mailaren arabera ordainduko da.

.-2027ko ekitaldia: 91.192.50€

.-2028ko ekitaldia: 91.192,50€

.-2029ko ekitaldia: 91.192,50€

.-Guztira 2027tik 2029ra bitarteko ekitaldien kreditu konprometitua: 273,577,5€

Hitzarmen honen etorkizuneko ekitaldietako dirulaguntzak baldintzatuta geratzen dira urte horietako Aurrekontuetan nahiko kreditu zuzkitzera.



Urteko aurrekontuak ahalbidetzen badu, aipatu zenbatekoari aurreko ekitaldiko Hego Euskal Herriko Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) emaitza gehituko zaio.

Dirulaguntza hau Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28. artikuluan, aukera ematen die Udalei zuzeneko dirulaguntzak emateko. Halaber, 22. artikulua ezartzen du (22.2a atala), Udalak eman ditzakeela dirulaguntza izendunak. Bai a hau garatzen duen araudiaren, udal-aurrekontuaren betearazpen-oinarrien eta aplikagarri den gainerako arauen arabera arautuko d

## **5.BESTE DIRULAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU-SARRERA ETA BALIABIDE BATZUEKIKO BATEGARRITASUNA.**

Dirulaguntza hau bateragarria da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin. Hala ere, beste finantzabide batzuk lortuz gero, ezingo da inoiz izan gain-finantzaketarik Udalaren dirulaguntzarekin.

Erakunde onuradunak, aurreko parrafoan aipaturiko baliabideak lortu dituela jakinarazi beharko du. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolana, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14.d) artikuluan ezarritakoaren arabera jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

## **6. GASTU HAUTAGARRIAK.**

Aipatu dirulaguntzarekin honako kontzeptu hauek finantzatuko dira, beti ere, aurrekontuan jasotako zenbatekoa gainditu gabe:

### **TRESNERIA**

Oñatiko Musika Bandak antolatutako jarduerak egoki burutzeko, Oñatiko Udalak eranskinean azaltzen den inbentario tresneria jarriko du Oñatiko Musika Bandaren ardurapean. Urte bakoitzaren amaieran, Oñatiko Musika Bandaren ordezkariak edo erantzuleak tresneriaren inbentarioa aurkeztuko du memoriarekin batera. Hitzarmen honetako dirulaguntzan tresneria erosteko edo mantentzeko zati bat jasotzen da, eta, beraz, inbentarioan jasotako tresneria guztia Udal jabetzakoa izango da.

**MUSIKA BANDAREN GISA BALIABIDEAK.**

### **PROGRAMAZIO GASTUA**

## **7.JUSTIFIKAZIOA.**

Oñatiko Udalak dirulaguntzaren ondorengo kontrola "hitzartutako jardunbideak" modalitatea erabiliz egingo du, Udalak izendatutako auditoria-entresa baten bidez. Gain-finantzaketa edo beste arau-hausterik antzeman ez gero, erreferentziatzeko araudia ezarriko da.



## **8. ORDAINKETA.**

Oñatiko Udalak urteko dirulaguntza honela emango dio Oñatiko Musika Bandari: Lehenengo zatia urtarrilean (%60), eta bigarren zatia ekainean (%40).

## **9. AZPIEGITURA**

Oñatiko Udalak, Oñatiko Musika Bandari ematen dion laguntza ez da soilik izaera ekonomikokoa, baizik eta, dirulaguntza horren osagarri eta parte gisa, azpiegitura-materialen laguntza/kudeaketa ere barne hartzen da.

Ilido horretan, hitzarmen honek indarra duen bitartean, Oñatiko Udalak bere jabetzakoa den gela baten erabilera uzten dio Oñatiko Musika Bandari laguntza ekonomiko ez-zuzen gisa.

Era berean, azpiegitura horren erabilerak berarekin dakartzan kudeaketa-lanak eta gastuak —hala nola garbiketa, argindarra, berogailua, mantentze-lan arruntak eta gunean bertan sortutako bestelako gastuak— Oñatiko Udalaren kontura izango dira, guztiak Musika Bandari emandako laguntza zati moduan ulertuta.

Nolanahi Udalak bere esku gordetzen du eraikina edozein unetan berreskuratzeko eskubidea edota hitzarmenaren baldintzak aldatzeko eskubidea, bat-bateko herri intereseko gertaerek horrela justifikatuko luketenean eta eraikinaren erabiltzailearentzat inongo kalteordain-eskubiderik gabe.

## **10. OÑATIKO MUSIKA BANDAREN BETEBEHARRAK.**

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14.artikuluari jasotako behebeharrak bete beharko ditu, eta bereziki, bete behar hauek izango ditu:

- Hitzarmen honetan aipatutako helburuak betetzea, proiektua betearaztea, eta hitzarmen hau egiteko arrazoi den jokabideari eustea.
- Oñatiko Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduerak onartzea: baita eskuduntzaduten beste kontrol organoek (estatukoak nahiz erkidegokoek) egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa ematea.
- Oñatiko Udalarari jakinaraztea beste dirulaguntza, laguntza, edo diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu baldin badira. Jakinarazi beharko da horien berri izan eta berehala, eta nolanahi ere, fondoei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, baita dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezen.
- Oñatiko Musika Bandak Oñatiko Udalaren dirulaguntza jasotzen dutela adieraziko du bere argitalpen eta adierazpenetan.
- Jasotako fondoak itzultzea, gain-finantziarioa gertatuko balitz.
- Behar beste baimen lortzea beren jarduerak garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.





### **10.1.HIZKUNTZA IRIZPIDEAK**

Jarduera interes publikokoa izanik, herritarrengan edo barne antolakuntzan eragina duten ahozko zein idatzizko adierazpen orok Oñatiko Udalaren hizkuntza irizpideak betebeharko ditu.

- Kartelak, abisuak, oharrak, publizitatea...euskaraz egingo dira; baita interneteko argitalpenak ere (blog, webgune eta sare sozialeko profiletan).
- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egingo da kartel, abisu, ohar eta bestelakoetan. Era berean, hizkuntzaren eta irudien bitartez, generoaren araberrako estereotipo eta rolak gainditzeko urratsak emango dira.
- Hizkuntza bat baino gehiago erabili behar den kasuetan, euskarari emango zaio lehentasuna tamainan, kolorean eta kokapenean.
- Udalarekiko harremanak euskaraz gauzatuko dira.
- Beste elkarte edo eragileekiko harremanetan ere euskara erabiliko da, eta ezinbestez hizkuntza bat baino gehiago erabili behar bada, euskarari emango zaio lehentasuna tamainan, kolorean eta kokapenean.

Irizpide horren aplikazioak ezingo ditu, inolaz ere, herritarren hizkuntz eskubideak urratu. Oñatiko Udalak ikuskatu ahal izango du aurreko baldintzaren betetze maila. Zehaztutakoak betetzen ez badira, elkarteak hizkuntzen normalizaziorako plangintza adostu beharko du Oñatiko Udalarekin. Horretarako Euskara Zerbitzuaren laguntza izango dute.

### **10.2.EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA**

Oñatiko Musika Bandak emakumeen eta gizonen berdintasunerako indarrean dagoen legeria bete beharko du. Oñatiko Udalak ez dio inolako laguntzarik emango elkarteko kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten bada Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 8ko 4/2005 Legea (24.2 artikulua xedatzen duenez, "euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei").

## **11. OÑATIKO MUSIKA BANDAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.**

Justifikazioarekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

**URTEKO PROIEKTUA:** Urte bakoitzeko ekainaren amaierarako, Oñatiko Musika Bandako ordezkariak edo erantzuleak elkartearen urteko proiektua aurkeztuko du eta horren aurrekontua, beti ere, **DIRUZ LAGUNTZEKO GASTU HAUTAGARRIEN KONTZEPTUAK** seigarren atalean jasotakoari dagokionez. Bertan honako atalak azalduko dira, besteak beste:

- Helburuak, jarduera eta ekintzak, baliabide ekonomikoak, giza baliabideak, material baliabideak eta abar.
- Gastuen eta sarreraren aurrekontua aurkeztuko da. Gastuak egiteko epea (faktura sortzea eta fakturaren eguna), oro har, urte naturala bukatzen denean amaituko da.



- Hitzarmen honetan eta Udal aurrekontuetan ezarritako diru-laguntzen onuraduna izatea debekatzen duen arrazoirik ezdagoela egiaztatu beharko du elkarteak, erantzukizuneko adierazpenaren bidez.
- ZERGA BETEBEHARRAK: Oñatiko Musika Bandak bermatu egin beharko du zerga obligazioak betetzen dituela: Gizarte Segurantzarekin, Oñatiko Udalarekin eta Foru Ogasunarekin (edo Estatuko Ogasunarekin hala badagokio).
- URTEKO MEMORIA. Urte bukaerarako, Oñatiko Musika Bandak, emandako laguntza egiaztatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:
- Gastuak eta diru sarrerak.
- Jatorrizko fakturak edo egiaztatutako kopia.

## **12.HITZARMENAREN IRAUPENA**

Hitzarmen honek sinatzen den egunetik lau urteko iraupena (2026-2029) izango du, beti ere dirulaguntza zuzkidura dagokion urteko aurrekontuan jartzen baldin bada. Hitzarmena urtero berrikusi ahal izango da Udal aurrekontuen errealitatearen arabera aldaketak izan ditzakelako. Aldaketarik ezean, hitzarmena urtero automatikoki berriztuko da.

## **13.OÑATIKO MUSIKA BANDAREN PROTOKOLOA.**

Protokolo hau onartzen da *Ley Orgánica 8/2021, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia (LOPVI)* eta *Ley 2/2024 de Infancia y Adolescencia del País Vasco* bezalako legedien arabera. Adingabeei (haurrak eta nerabeak), hauen ongizatea bermatu eta indarkeriarik gabe garatzeko ingurune bat sortzea du helburu. Oñatiko Musika Bandak, herriko banda gisa, konpromisoa hartzen du: adingabeei indarkeriaren edo tratu txarren edozein forma prebenitzeko, egoera susmagarriak detektatzeko, eta behar izanez gero, indarkeri zantzuen aurrean protokolo hau aktibatzen. Hitzarmen honi atxikitzen zaio onarturiko protokoloa.

## **14. ZEHAPEN-ARAU BIDEA.**

Diruz lagundutako erakundeak dirulaguntzaren arloan egin ditzakeen arau-hausteak azaroaren 17ko 38/003 Legearen IV: tituluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduan IV. Tituluan ezarritakoaren arabera mailakatu eta zehaztuko da.

Eta hitzarmen honetan zehaztutakoarekin bat datozela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, jarraian agertzen direnek sinatzen dute:

Sindura digitalean agertzen den datan,

Izaro Elorza Arregui  
Oñatiko Udaleko alkatea

Ion Astigarraga Iriondo  
Oñatiko Musika Bandako lehendakaria

## **Eranskina: Musika bandaren protokoloa.**

“Adingabeei Zuzenduriko Babes Eta Ongi-Izate Protokoloa (Euskadi – LOPIVI eta Hezkuntza- eta Haurren Legearen pean).

### **1. Sarrera.**

Protokolo hau onartzen da *Ley Orgánica 8/2021, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia (LOPIVI) eta Ley 2/2024 de Infancia y Adolescencia del País Vasco* bezalako legedien arabera. Adingabeei (haurrak eta nerabeak), hauen ongizatea bermatu eta indarkeriarik gabe garatzeko ingurune bat sortzea du helburu. Oñatiko Musika Banda-k, herriko banda gisa, konpromisoa hartzen du: adingabeekiko indarkeriaren edo tratu txarren edozein forma prebenitzeko, egoera susmagarriak detektatzeko, eta behar izanez gero, indarkeri zantzuen aurrean protokolo hau aktibatzeke.

### **2. Aplikazio-esparrua**

Protokolo hau aplikatuko zaie: Oñatiko Musika Bandako kide diren zein honek antolatzen dituen ekimen, kontzertu, bidai, entsegu edota bestelako jarduera guztietan parte hartzen duten kide edo laguntzaile guztiei, baldin eta salatu beharreko jarrerak Oñatiko Musika Bandaren espazio\* baten izango balira, edo honek sortutako harreman batean.

### **3. Oinarrizko printzipio eta helburuak**

- Haur edo nerabearen interesa lehenestea.
- Tolerantzia-zero, indarkeriarik edo tratu txarrik ez da onartzen.
- Konfiantza- eta segurtasun-ingurune bat bermatzea.
- Kide guztien arteko berdintasuna eta hauen diskriminazio eza bermatzea.

### **4. Koordinatzaile / arduradunaren figura**

Izena: \_\_\_\_\_

Kargua: Koordinatzaile / Errepresentantea

Harremanetarako: Tel: \_\_\_\_\_ - Email: \_\_\_\_\_

Zereginak: Protokolo honen ezarpena eta jarraipena, komunikazioak jasotzea, erakunde ofizialekin harremana.



## 5. Portaera-araudi eta prebentzio-neurriak

- Adingabeekin edukitzen diren tratu oro, egokia, enpatikoa eta errespetuzkoa izan behar da.
- Debekatuta egongo dira tratu txar fisiko, psikologiko edota sexualak.
- Bandako kide diren heldu eta adingabeen arteko harreman zein komunikazio formak zaindu behar dira, harreman hauetan hartzen diren jarrerren kontzientzia hartuz.
- Banda barneko komunikazio bideen (whatsapp taldeak) erabilera egoki eta segurua izango da.
- Jarduerak helduen ikuskaritzapean egingo dira.
- Bidaiak, irteerak eta konbibentzia saioak familia-baimenarekin egin behar dira.
- Arduradunek delitu-sexualen ziurtagiri negatiboa izan beharko dute.

## 6. Jarduera-prozedura:

### 6.1. Zer egin indarkeria kasu baten susmoa badago

- Adin gabe batekiko biolentzia ematen ari denaren susmoa izan dezake bandakide den edonork. Kasu horretan, bereala jakinarazi behar zaio Koordinatzaileei.
- Honek, dokumentatu eta egoera baloratuko du. Juntakideekin komentatuko du beharra izanez gero.

### 6.2. Prozedura

- Kasua baloratu ostean, juntakideek hartu beharreko neurriak baloratuko dituzte eta adingabea babesteko neurriak hartuko dira.
- Koordinatzaileek kasuan inplikaturik dauden kideei komunikatuko dizkiete hartuko diren neurriak erasotua izan den pertsonaren edota honen tutore legalen onespenerekin.
- Behar izanez gero autoritate ezberdinekin harremanetan jarriko da.
- Kasuaren erregistro eta jarraipena egingo dute koordinatzaileek konfidentziasuna bermatuz.



**OÑATI**  
dabilen herria

## 7. Eskumen-eta jarduera-eremuetako Agintaritza-Erakundeak

Banda honek Euskadiko erakunde hauek hartzen ditu kontuan:

Ertzaintza eta udal-polizia.

Eusko Jaurlaritza – Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko saila. Gipuzkoako Foru Aldundia eta SAIA zerbitzuak.

Oñatiko Udala eta bertako gizarte zerbitzuak.

Guardiako epaitegia (Larrialdiko kasuetan).

## 8. Ebaluazioa eta berrikuntza

Protokoloa urtero berrikusiko da, behar izanez gero eguneratuz. Kopia banatuko dira familia, langile eta boluntario guztiei.

## 9. Onarpena eta zabalkundea

Oñatiko Musika Banda-k protokolo hau onartu du \_\_\_/\_\_\_/\_\_\_ egunean. Sinadurak:

\_\_\_\_\_ Koordinatzaileak

\_\_\_\_\_ Presidentea / Zuzendaria

## Oñatiko Musika Banda



**OÑATI**  
dabilen herria

**Oñatiko Udala**

Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati  
tel: +34 943 78 04 11 • [oñati.eus](http://oñati.eus)



**OÑATIKO**  
UDALA



**OÑATI**  
dabilen herria

